

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

#### **Zaborra biltzeko zerbitzu publikoa emateagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin betiko orartzea**

Udalbatzak, 2025eko azaroaren 4an egindako ohiko bilkuran, zaborra biltzeko zerbitzu publikoa emateagatiko tasa arautzen duen zerga-ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki du.

Jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, hasierako onespeneraren erabakia behin betiko ornartu da.

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Ordenantzaren testu bateratua argitaratzen da.

Behin betiko onarpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46.1 artikuluekin bat etorritz, egoki iritzitako beste edozein gorabehera.

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2025eko abenduaren 23a

*Alkate-udalburua*

*PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA*

**ZABORRAK BILTZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEAGATIKO  
TASAREN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua.**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Ogasuna arautzen duen Foru Arauarekin bat etorriz, tasak ezartzen eta exijitzen ditu eranskineko tarifetan agertzen diren zaborrak biltzeko zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta eskatzen dira tasa hauek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

**2. artikulua.**

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

**II. ZERGA-EGITATEA****3. artikulua.**

Tasaren zerga-egitatea osatzen dute honako zerbitzu hauek: etxeko zaborrak biltzea eta industria-, merkataritza-, lan-, arte- eta zerbitzu-jarduerak egiten diren etxebizitza, ostatu eta lokal edo establezimenduetako hiri-hondakin solidoak biltzea.

**III. HOBARIAK****4. artikulua.**

1. Honako hobari hauek ezarriko dira:

- a) Tasari kuotaren ehuneko 10eko hobaria aplikatuko zaio etxean konpostzeagatik, hau da, etxean sortutako hondakin organikoak etxean bertan norberak kudeatzeko sistema erabiltzeagatik.

Etxeko konpostatzea egiten dela egiaztatu ahal izateko, teknikari eskudunek hobaria aplikatzea eskatzen duten interesdunen etxebizitzak ikuskatzeko bisita egingo dute.

Edozein kasutan, hobaria aplikatzea eskatzen dutenek hobariaren eskaeran ikuskapen-bisita hori egiteko baimena eman beharko dute.

Dagokion ikuskapen-bisita egin ondoren, teknikari eskudunak txostena egingo du, adieraziz egokia den edo ez den eskatutako hobaria ematea.

Hobaria aplikatzea egokia den aztertzeke aintzat hartu beharreko datuak hobaria eskatzen den aurreko ekitaldiaren abenduaren 31n zehaztuko dira.

- b) Tasaren kuotari ehuneko 10eko hobaria aplikatuko zaio sarbidea kontrolatzeko sistemen bidez kontrolatutako konpostatze komunitarioa egiteagatik. Konpostatze komunitario gisa ulertuko da hondakin organikoak kudeatzeko sistema, non eremu jakin bateko auzokideek eremu amankomun publikoa duten hondakin organikoak kudeatzeko, prestakuntza egiaztatu nahikoa duen kanpoko gainbegiratzearekin.

Hobaria aplikatzeko, ulertuko da konpostatze komunitarioa egiten dela, baldin eta urtean 100 ekarpen edo gehiago egiten badira (edo, konpostatze komunitarioa martxan jarri zen egunaren arabera, ekarpenak proportzionalak badira). Baldintza hori teknikari eskudunek egiaztatuko dute, interesdunak hobariaren eskaera aurkeztu ondoren.

Hobaria aplikatzea egokia den aztertzeke aintzat hartu beharreko datuak hobaria eskatzen den aurreko ekitaldiaren abenduaren 31n zehaztuko dira.

- c) Tasaren kuotaren ehuneko 10eko hobaria aplikatuko zaie materia organikoko ontziak erabiltzen dituztela egiaztatzen duten pertsoneri; ontziak xede horretarako espezifikoak izango dira, eta sarbidea kontrolatzeko sistema edukiko dute.

Hobari hori aplikatzeko, ulertuko da materia organikoko ontziak benetan erabiltzen direla, baldin eta egiaztatzen bada urtean 100 aldiz edo gehiago ireki direla (edo sarbidea kontrolatzeko sistemadun edukiontzia martxan jarri diren epearen arabera kopuru proportzionalan ireki direnean). Gorabehera hori teknikari eskudunek egiaztatuko dute, interesdunak hobariaren eskaera aurkeztu ondoren.

Hobaria aplikatzea egokia den aztertzeke aintzat hartu beharreko datuak hobaria eskatzen den aurreko ekitaldiaren abenduaren 31n zehaztuko dira.

- d) Tasaren kuotaren ehuneko 10eko hobaria aplikatuko zaie bio-hondakinaren ekoizle handiak diren ostalaritza-establezimenduei edo beste batzuei, baldin eta identifikazio-sistema duten hondakinak biltzeko sistemetan parte hartzen badute (atez ateko bilketa eta/edo edukiontzia).

Hobaria aplikatzeko, ulertuko da hondakinak biltzeko sisteman parte hartzen dela, baldin eta urtean 100 ekarpen edo gehiago egiten badira (edo, sistema horiek martxan jarri ziren egunaren arabera, ekarpenak proportzionalak badira). Gorabehera hori teknikari eskudunek egiaztatuko dute, interesdunak hobariaren eskaera aurkeztu ondoren.

Hobaria aplikatzea egokia den aztertzeke aintzat hartu beharreko datuak hobaria eskatzen den aurreko ekitaldiaren abenduaren 31n zehaztuko dira.

- e) Tasaren kuotaren ehuneko 10eko hobaria aplikatuko zaie soberako elikagaiak dohaintzat emateko erakunde sozial batekin edo helburu soziala duen batekin lankidetzaz hitzarmena edo akordioa duten establezimenduei, baldin eta horrelakorik edukitzera derrigortuta ez badaude, Elikagaien galera eta xahuketa prebenitzeari buruzko apirilaren 1eko 1/2025 Legeari jarraikiz.

Hobaria aplikatzeko eskaerarekin batera, indarreko lankidetzaz-hitzarmen edo -akordioaren kopia eta akordioa edo lankidetzaz sinatu duen erakundearen erantzukizunpeko adierazpena igorri beharko da; adierazpen horretan adieraziko da lankidetzaz hori benetan ematen ari dela, gauzatutako akordioan edo hitzarmenean aurreikusitako terminoetan.

2. Aipatutako hobariak ez dira inola ere ofizioz emango. Interesdunak dagokion eskabidea aurkeztu beharko du, edozein kasutan, otsailaren 25a baino lehen, bai eta aurreko atalean aipatutako dokumentazioa erantsi ere.

Hobariak lehenengo seihilekoko lehenengo ordainagiria kobratu baino lehen ebatziko dira.

3. Ematen badira, hobariak eskatu diren ekitaldian aplikatuko dira, eta ez dute eraginik izango lehenago kobratutako kuoten gainean.

4. Artikulu honetako lehenengo apartatuan aurreikusitako hobariak ez dira bateragarriak izango elkarren artean, eta ezingo da eskatu aldi berean bi hobari edo gehiago aplikatzea.

#### **IV. SUBJEKTU PASIBOA**

##### **5. artikulua**

1. Subjektu pasibo zergadunak dira Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan jasotako pertsona fisiko edo juridikoak eta erakundeak, zerbitzua ematen den toki, plaza, kale edo bide publikoetako etxebizitzak eta lokalak okupatzen edo erabiltzen dituztenak, jabe gisa edo gozamedun gisa, edota prekarioan egonda ere.

2. Zergadunaren ordezkotzat subjektu pasibotzat hartuko dira etxebizitzaren edo lokalen jabeak, eta, bidezkoa bada, haiei eragin ahalko die zerbitzuaren onuradun eta etxebizitza edo lokalen erabiltzaileen gainean kitatutako kuotak.

#### **V. ZERGA-OINARRIA**

##### **6. artikulua**

Zerga-oinarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza izango da, tarifyan zehaztutako terminoetan.

#### **VI. KUOTA**

##### **7. artikulua**

Kuota zehazteko, aurreko artikuluaaren arabera oinarriari eranskinean jasotako dagokion tarifa aplikatuko zaio.

## VII. SORTZAPENA

### 8. artikulua

Tasaren sortzapena egin eta zerga ordaintzeko betebeharra sortuko da zerbitzu-prestazioa hasten den unean; ondore horretarako, hasita dagoela ulertuko da, derrigorrez jaso behar dela kontuan hartuta, etxeko zaborrak biltzeko udal-zerbitzua ezarrita eta funtzionatzen dagoenean tasaren zergadunek erabilitako etxebizitzak edo lokalak dauden kale edo tokietan.

## VIII. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

### 9. artikulua

Zergaren arau-hausteen kalifikazioari dagokionerako, baita kasu bakoitzean dagozkien zehapenentarako, Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 77. artikuluen eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio.

## IX. XEDAPEN IRAGANKORRA

4. artikuluko a), b), c) eta d) apartatuetan aurreikusitako hobarien aplikazioa 2027ko ekitalditik aurrera bakarrik eskatu ahalko da (ekitaldi hori barne).

## X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskinak 2025eko azaroaren 4an eginiko ezohiko Osoko Bilkuran aldatu ziren, eta indarrean sartuko da Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean; halaber, indarrean jarraituko du ordenantza aldatzea edo berariaz indargabetzea adosten den arte.

## I. ERANSKINA

### TARIFAK

Epigrafea	Tasak
Etxebizitzetako zaborra	156,81 €
Saltoki, eta jatetxe, taberna, hotel eta egoitzak ez diren lokaletako zaborra	254,89 €
Jatetxe, taberna, hotel eta egoitzetako zaborra	934,62 €
Landetxe, landa-apartamentu eta abarretako zaborra	339,87 €
1000 m2-ra arteko enpresen zaborra	1.015,44 €
1000 m2 baino gehiagoko enpresen zaborra	1.617,93 €

Ohar argigarria: higiezin berean erabilera bat baino gehiago badago, tasa bakarra kobratuko da, aplikatu beharreko zenbatekoetatik handiena hartuz.

**DIRU-BILKETARAKO ALDIA:**

Lehenengo erdia abuztuan eta bigarrena eta azkena abenduan.